

KORONABIRUSARI, COVID-19, BURUZKO OHAR GARRANTZITSUA | INSTALAZIOAK ITXITA

[eus] Gaur aurre egin behar diogun koronabirusaren egoera aldatu egin da, eta, birusaren hedapenean aurrera egin denez, Klub Atlético San Sebastián-ek beharrezko neurriak hartzea erabaki du, osasun-sistemarekin lankidetzan, prebentzioz eta arduraz, gure langileen, bazkideen eta klubak antolatzen dituen jardueren gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, egon daitezkeen kutsatzeak eta birusaren hedapena saihesten saiatuz.

Hori dela eta, **2020ko otsailaren 14tik aurrera Aieteko (Bera Bera) eta Kontxako instalazioak itxita egongo dira, eta bertan behera geratuko dira ikastaroetako jarduera guztiak, etab.**

Neurriaren iraupena pandemiaren garapenaren, bilakaeraren eta gobernu-agintari eskudunen erabakien eta gomendioen arabera izango da.

Era berean, testuinguru horretan, Atlético San Sebastián **Klubak erabaki du berehala etetea klubak gure instalazioetan antolatzen dituen jardueretako bazkideei eta gainerako erabiltzaileei ematen zaien aurrez aurreko arreta.** Horri dagokionez, guztion laguntza eskatzen dugu, neurri hori arrakastaz aplikatu dadin.

Horregatik, kontaktua 943 21 53 54 telefono zenbakira deituta (asteleheneretik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara) edo helbide elektronikoa honetara idatzita egitea eskatzen dugu: comunicacion@atletico-ss.org; informazio guztia eguneratuta izango da webgunean: www.atleticosansebastian.com

Azkenik, gure langile, bazkide eta gainerako erabiltzaile guztien elkartasuna, ulermena, lankidetzat eta laguntza eskatzen dugu.

Besarkada birtuala guztientzat.

Donostian, 2020ko martxoaren 24an
Zuzendaritza Batzordea

